

## IRAKASKUNTZA-GIDA

2017/18

### Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

### Zikl.

Zehaztugabea

### Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

### Ikastaroa

4. maila

## IRAKASGAIA

25188 - Euskararen Arauak eta Erabilera

ECTS kredituak: 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasketa planen helburuetan zehazten den bezala, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduko ikasleek arlo hauetan aritzeko gaitasun orokorrak eskuratuko dituzte: hezkuntzan, osasungintzan, kirol eta aisialdian eta kudeaketan. Edozein gizartetan goi mailako tituludunek ardura berezia dute hizkuntza-komunitateari begira. Haiek sortutako testuek eta mezuek hizkuntzaren estandar formala errespetatu behar dute eta egokiak izan behar dira dagokion komunikazio-egoeraren arabera. Horrenbestez, etorkizuneko profesionalak trebatu egin behar dira gauza izan daitezzen hizkuntza-baliabide egokienak erabiltzeko eta euren bizitza akademiko eta profesionalean komunikazio-egoera bakoitzari behar bezala erantzuten jakin dezaten.

Bestalde, euskara hizkuntza gutxitua izanik, ez du oraindik gaztelaniak duen hedakuntza eta erabilera kirolaren eta jarduera fisikoaren arloan zein aisialdiaren esparruan; gure ikasleek, etorkizuneko profesional aditu gisa jardungo duten neurrian, garrantzizko eragileak izango dira euskararen normalizazioan, eta horrenbestez, hizkuntzaren alderdi normatiboak zein pragmatikoak ezagutu behar dituzte. Unibertsitateko Plan Gidariak oso aintzat hartzen du ardura hori eta bere ekarpena egiten du Euskararen Araua eta Erabilera eta Komunikazioa Euskaraz ikasgaiekin.

Euskararen Araua eta Erabilera ikasgai honen helburuak dira: euskararen erabilerari buruzko gogoeta egitea, hizkuntza-eta testu- baliabide egokiak bereizteko gaitasuna lortzea, eta hizkera estandarren irizpide eta arauen ezagutza nahikoa eskuratzea dagokion testuinguruan behar bezala erabiltzeko.

Komunikazio-egoera profesionalean ahoz zein idatziz jarduteko behar diren hizkuntza- eta testu- trebetasunak landuko dira.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. gaitasuna. Hitzunek eta gizarte-eragileek hizkuntzen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea eta, bereziki, euskararen egungo egoera soziolinguistikoarekin harremanetan jartzea.
2. gaitasuna. Hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokien nozioei erreparatzea.
3. gaitasuna. Arrazoi pragmatiko-diskurtsiboengatik hautatzen diren hizkuntza-baliabideen funtzio komunikatiboa eta esanahi soziala antzematea.
4. gaitasuna. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatzea eta azaltzea, eta norberaren komunikazio-rola berriro definitzea askotariko komunikazio-egoerei egokitzeko.
5. gaitasuna. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea hizkuntza-baliabideen formari, esanahiari eta erabilerari buruzko informazioa lortzeko, bereziki Interneten eskuragarri daudenak.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

### LANDUKO DIREN GAIK:

#### 1. Giza hizkuntza:

- 1.1. Giza hizkuntza, hizkuntza aldaerak eta hizkera berezituak.
- 1.2. Hizkuntza gutxituen biziraupena eta berreskurapena: euskararen lekua gizartean eta kirolaren munduan.
- 1.3. Mintzaira-jardueraren ezaugarri orokorrak.

#### 2. Euskararen aldaera estandarra: euskara batua:

- 2.1. Euskararen estandarizazio-prozesua.
- 2.2. Euskaltzaindiaren gomendioak eta arauak.
- 2.3. Estandarraren estilo zaindu orokorra.

#### 3. Euskararen erabilera kirolaren arloan:

- 3.1. Euskararen erabilera-esparruak eta haien ezaugarriak.
- 3.2. Kirolaren eta jarduera fisikoaren arloko komunikazio-egoerak: testu-generoen identifikazioa eta azterketa.
- 3.3. Lan-munduko testu-genero aukeratuen ekoizpena.

#### 4. Kontsulta-baliabideak:

- 4.1. Hitzegiak eta corpusak
- 4.2. Itzultzaileak
- 4.3. Kontsulta-guneak

### EGITARAU PRAKTIKOA

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren munduko euskararen garapena dinamizatzen duten talde eragileak identifikatu (administrazioa, unibertsitateak, elkarteak, bestelakoak&#8230;), eta bakoitzaren ekarpenaren balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa egin (helburuak, jorratutako arloak, argitaratutako lanak&#8230;).
2. Kirolaren eta jarduera fisikoaren alorreko euskararen corpusa osatzen duten baliabideak identifikatu, eta baliabide

horien inbentarioa egin, arloz arlo antolatuta.

3. Testu-lagin hautatuen irakurketa, diskurtso eta hizkuntza auzien azterketa eta euren egokitasunaren inguruko eztabaida.

4. Ahozko eta idatzizko oinarrizko testuen ulermena eta ekoizpena.

5. Euskara batuaren arauetarako buruzko ariketak.

6. Ohiko gramatika arazoei buruzko ariketak.

7. Interneteko baliabideen erabilera erabiltzeko ariketak.

## METODOLOGIA

Kurtsoak hertsiki erlazionatutako alderdi teorikoa eta praktikoa ditu. Ariketa praktikoetan oinarrituko dira eskolak bereziki. Ariketa horiek oinarri hartuta emango ditu irakasleak behar diren azalpen teoriko gehienak.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	30		20		10				
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	45		30		15				

### Legenda:

M: Maistrala  
GCL: P. klinikoak

S: Mintecia  
TA: Tailerra

GA: Gelako p.  
TI: Tailer Ind.

GL: Laborateiko p.  
GO: Ordenagailuko p.  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ahozko defentsa % 20
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluatuko dira gelan egindako ariketak eta praktikak, banakako lanak, talde lanak eta lanen ahozko aurkezpena.

Ebaluaziorako bi aukera aurreikusten dira:

• A modalitatea: ebaluazio jarraitua (%100)

• B modalitatea: azkeneko proba (%100)

A modalitatea: Ebaluazio jarraitua. Hauxe izango da ohiko modalitatea. Kasu honetan, ikasleek, azterketa-probaren ordean gelan egindako jardueren bidez eskuratuko dute kalifikazioa: jarduera praktikoa (%60) eta lan monografikoa (%40).

Irakasgaia A modalitateetan jokatu ahal izateko ezinbestekoa izango da irakasleak eskatutako lan gehienak (%90) garaiz eta moduan ematea eta horietako bakoitzaren kalifikazioa gaindituta izatea.

Modalitate hau aukeratzen duten ikasleek amaierako ebaluazioa egitea eska dezakete. Eskaera idatziz egin behar diote irakasleari irakasgaiaren 9. astearen aurretik.

B modalitatea: Azkeneko proba. Edukiak eskoletan landutako gai eta ariketa praktikoa zein teorikoen inguruan izango dira. Halaber, modalitate hau aukeratzen duen ikasleak irakasleak kurtso hasieran ikasle guztientzat proposatzen duen lan monografikoa ere egin behar du eta azterketa egunean aurkeztu, ahoz eta idatziz. Ebaluazio-irizpidea hurrengo izango da:

- a) Irakasleak agindutako lan monografikoa: % 30 (%15 ahozko aurkezpena eta %15 idatzizkoa)
- b) Ordenagailuko ariketa praktikoa: %10.
- c) Test erako ariketak: %30
- d) Testu idatzi baten ekoizpena : %30.

Irizpide hauek ohiko zein ez-ohiko deialdietarako erabiliko dira.

## OHIKO DEIALDIA: JARRAIBIDEAK ETA UKO EGITEA / CONVOCATORIA ORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA:

• Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

• Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

• Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian ikasleak azterketaren bidez eskuratuko du kalifikazioa. Ikastarorako lan monografikoa aurreikusten bada, hura ere egina eta gaindituta izan beharko du behin betiko kalifikazioa eskuratzeko.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

EUSKALTZAINDIA (2000). Hiztegi batua. Euskaltzaindia, Bilbo.

ALBERDI, X. & UGARTEBURU, I. (1999). Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa. EHU argitalpen zerbitzua.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

ALBERDI, X. & SARASOLA I. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia, Bilbo, EHU.

EUSKALTZAINDIA (1993). Euskal Gramatika Laburra. Perpaus bakuna. Bilbo.

GARZIA, J. (2005). Kalko okerrak. Vitoria-Gasteiz: EJren Argitalpen Zerbitzua. [on line:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/estilo\\_liburua\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)]

HAEE / IVAP (2005). IVAPeko estilo-liburua. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (arg.) (1998). Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak.

Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, EHU & Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.

IVAP (1997). Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IVAP (2003). Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez. HAEE/IVAP, Gasteiz.

SARASOLA, I. (1997). Euskara batuaren ajeak, Donostia, Alberdania.

ZABALA, I. (2000). "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak", Ekaia, 12.

ZABALA, I., eta Odriozola, J.C., (1992). Idazkera teknikoa 1: Hitz ordena, galdegaia eta komaren erabilera. EHU argit. zerbitzua.

ZUAZO, K. (2000). Euskararen sendabelarrak, Donostia, Alberdania.

ZUBIRI, I. (1995). Euskal Gramatika Osoa, Bilbo, Didaktiker.

ZUBIRI, I. & ZUBIRI, E. (1995). Euskal Gramatika Osoa.

ZUBIMENDI, J.R. (2004). Ortotipografia. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

[<http://www.ehu.eus/azpidazki/PDFak/Ortotipografia.pdf>].

Arloko hiztegi zenbait:

AGIRRE, J. (zuz.) (1994): Kirol hiztegiak, Atletismoa, Gasteiz, UZEI-SHEE/IVEF

AGIRRE, J. (zuz.) (1994): Kirol hiztegiak, Futbola, Gasteiz, UZEI-SHEE/IVEF

AGIRRE, J. (zuz.) (1994): Kirol hiztegiak, Pilota, Gasteiz, UZEI-SHEE/IVEF

ASKOREN ARTEAN (1990): Los Vascos, Juegos y Deportes 1, II, III, IV, V, Bilbo, Lur

ASKOREN ARTEAN (1997): Planeta entziklopedia 15. liburukia, Jarduera fisikoa eta kirola, Bartzelona, Planeta

Euskaltzaindia (2000), ¿Hiztegi Batua¿, Euskara 45-2 [<http://www.euskaltzaindia.net>]

FENEIZ, HEINZ (1993): Giza anatomiako poltsiko-atlasa, Usurbil, ELHUYAR, K.E. [Javier Agirre Lasarteren itzulpena, 2001, 2. argitalpena].

### Gehiago sakontzeko bibliografia

ENSUNZA, M. eta beste (2002): Zientzia eta teknikarako euskara. Zenbait hizkuntza baliabide. UEU.

ODRIOZOLA, J.C. (koord.) (1999): Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan. Bilbo, EHU.

ZABALA, I. (2000): ¿Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak¿, Ekaia, 12.

ZABALA, I. (koord.) (1996): Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa. Bilbo, EHU.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (arg.) (1998), Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak.

Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, EHU & Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.

IDIAZABAL, I. & GARCIA, I.M. (2007). Ahozko hizkuntza: euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan, Bilbao, EHU.

### Aldizkariak

Elhuyar Zientzia eta Teknika

Argia

Ekaia

Hik Hasi

Administrazioa Euskaraz

### Interneteko helbide interesgarriak

&#8226; ADMINISTRAZIOKO HIZKERA: [http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin\\_hizkera/eu\\_3810/hizkera\\_menu\\_e.html](http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin_hizkera/eu_3810/hizkera_menu_e.html)

&#8226; AGIRI SOZIOLABORALEN EREDUAK:

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46714/eu/contenidos/informacion/dokumentu\\_soziolaboralak/eu\\_9374/agiri\\_soziolaboralak.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46714/eu/contenidos/informacion/dokumentu_soziolaboralak/eu_9374/agiri_soziolaboralak.html)

&#8226; AZPIDAZKI (Administrazio eta zerbitzuen arloan euskara erabiltzen laguntzeko gomendio, argibide eta

baliabideak; EHU): [www.ehu.es/azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)  
&#8226; CENTRE DE REDACCIÓ: <http://mutis2.upf.es/cr/casjur2005/index.html>  
&#8226; DUDANET: <http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioldioma.do?v50aCgaldioma=eu>  
&#8226; EUSKALTERM (terminologia bankua): [www1.euskadi.net/euskalterm](http://www1.euskadi.net/euskalterm)  
&#8226; EUSKARA BATUAREN ARAUAK eta HIZTEGI BATUA: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)  
&#8226; Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutakoa. ([http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/euskara\\_planak\\_bibliografia/es\\_7611/adjuntos/ebpn.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/euskara_planak_bibliografia/es_7611/adjuntos/ebpn.pdf))  
&#8226; Galdos Irazabal, Imanol: Kirola eta Euskara. ([http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/1021/es\\_6163/adjuntos/galdos.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/1021/es_6163/adjuntos/galdos.pdf))  
&#8226; <http://parles.upf.edu/cr/casacd/index.html>  
&#8226; <http://www.ehu.es/azpidazki/>  
&#8226; <http://www.ehu.es/ehulku>  
&#8226; <http://www.euskaltzaindia.net>  
&#8226; <http://www.hiztegia.net>  
&#8226; <http://www.xuxen.com>  
&#8226; Osasungoa Euskaratzeko Elkartea, <http://www.oeegunea.org>  
&#8226; Urizar, Urri & Gabilondo, Amaia: Gazteen aisialdia eta kirola. ([http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/1021/es\\_6163/adjuntos/Urri.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r57-4075/es/contenidos/informacion/1021/es_6163/adjuntos/Urri.pdf))  
&#8226; [www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz)  
&#8226; [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net)  
&#8226; [www.xuxen.com](http://www.xuxen.com)  
&#8226; Zientzia eta Teknikaren aldizkaria, <http://www.zientzia.net>  
. EHULKU: <http://www.ehu.eus/es/web/euskara/ehulku>

## OHARRAK

Ikastaroa egiteko euskararen oinarritzko ezagutza izan behar du ikasleak.